



**2018 ekitaldiko "Adinberri programa"ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu**

**1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 12. oinarria)**

12.1. Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta diru laguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz deialdian ezartzen direnak ere.

12.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2013-2017 aldirako onartzen duen 2014ko abenduaren 22ko Diputatuen kontseiluko erabakiak xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 249 zk. 2014ko abenduaren 31koa). Diruz lagundutako proiektuetako azken dokumentazioaren euskarazko bertsio bat eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuari

12.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

12.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

12.5. Publizitate egokia egitea Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuaren eta Gizarte Politikako Departamentuaren diru laguntzaren xede diren proiektu edo jarduketarako ematen duten finantzaketari beharrezko publizitatea ematea. Horretarako, haien irudi instituzionala eta Adinberri ekimenaren irudi korporatiboa sartuko dira, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoko edo ikusentzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

12.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

12.8. Diru lagun-tza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, diru-lagun-tza itzu-li beharko da eta 18. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

**2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. Eranskina 13. oinarria.)**

Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru-laguntzaren xedeko jarduera zati bat beraiek egitea, % 50a arte, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharrezkoak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez ditenak.

**3.- Diru laguntzak ordaintzea. (I. eranskina 15. oinarria.)**

15.1 Diru laguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 16. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

15.2. Hala ere, kontuan hartu behar da laguntza programaren xedea dela harreman erantzunkideen eredu berriak garatzeko ekimenak sustatzea, eta ekimen horiek epe ertain edo luzean emaitza eraldatzaileak izaten dituzten horrek zaildu egiten duela finantzazioa lortzea, eta kasu batzuetan, gainera, entitate onuradunak diru irabazi asmorik gabeak izaten direla, zeinak diru laguntzaren xedeak garatzeko finantza zailtasunak izaten baitituzte. Hori guztia aintzat hartuta, eta aurreko esperientzietan proiektuak nola gauzatu diren kontuan izanda, hain zuzen, aurretiazko ordainketak egin ahal izango dira, bermerik gabe, diru laguntzaren xede diren jarduketak egin ahal izateko beharrezkoa den finantzazio gisa, onuradunaren eskaera eta finantzazio beharra duela zuriu ondoren. Laguntzaren aurrerakin horiek proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, aurrekontuetan baliabide nahikoa badago eta diru laguntza osoaren % 65 gainditzen ez bada (**ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/adinberri>**)

15.5 Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hala bada, ordaindu baino lehen aurkeztu beharreko justifikazioaren barruan, eguneratutako egiaztagiria sartuko dira. Agiri horien ordean, berariaz baimendu ahal izango du Ekonomia Sustapeneko, Landa



Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentua, kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak egokiak diren datuak zuzenean eman diezazkion.

#### **4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 8. oinarria)**

#### **5.- Diru laguntza zuritzea. (I. eranskina 16. oinarria.)**

16.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du erakunde onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

16.2. Diru laguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik (**2019ko urriaren 2**) kontatuko da.

16.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan erakunde onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Jarduera memoria bat, diru laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzekoan sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

\* Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. (**Departamentuak emango duen eredia - ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/adinberri>**)

\* Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

\* Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo diru laguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere. (**Departamentuak emango duen eredia - ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/adinberri>**)

\* Nominak eta 190 eredia eta TC1/TC2 agiriak, langileen barruko gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen kasuan, TC1/TC2 agiriaren ordez, Autonomoen Araubideko kotizazio-buletinen kopia. Kooperatiba-sozietateen kasuan, kooperatibako bazkideen kotizazio-zurtagiria, Gizarte Segurantzako dagokion erakunde laguntzaileak emana. (**Ikusi justifikatzeko prozedura dokumentua**)

\* Orduen txostenak, erakunde eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta. (**Departamentuak emango duen eredia - ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/adinberri>**)

\* Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro (BEZa salbu) edo hortik gorako kostu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua diru laguntza eskatu aurretik egin ez den. (**Garatu den prozedura bete dela frogatuko duen dokumentazioa atxiki beharko da**)

\* Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan edota entitate laguntzailekotan egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazioa, indarrean dagoena. Dokumentazio horren ordez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari baimena eman dakioke berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik

— Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

16.4. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

16.6. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez diru laguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiria. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

16.7. Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako diru laguntza baino txikiagoa izan dela, diru laguntza doitu egingo da. Diru laguntza zuritzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo diru laguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, diru



laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 18. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako diru laguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

#### **6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 17. oinarria.)**

17.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta diru laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta besteren batzuk kaltetzen ez badira.

#### **7.- Proiektuak gauzatzeko data.**

Erakunde onuradunek **2019ko urriaren 2rako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

#### **INFORMAZIO GEHIAGO**

- Adinberri programa.(G.A.O. 2018ko maiatzak 28, 101 zk.)
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.)